

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2007-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Foru Aldundiaren eta bere Erakunde Administrazioaren 2007ko ekitaldiaren ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Foru eta Erakunde-Administrazioaren finantza egoera aztertzen du.

Erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du Arabako Foru Aldundiak 2007ko ekitaldian legezotasuna betetzeari dagokionez, baina iritzi orokor honekiko hainbat salbuespen azaldu ditu.

Honela, bada, Epaitegiak Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiaren aurrean aurkeztutako eta ebazteko dauden kasazio-errekurtsoek eragin ditzaketan ondorioen gaineko zalantza azaleratu du, Europar Batasuneko Lehen Instantziako Auzitegiaren epaia dela-eta, aurrez Arabako Foru Aldundiak 18/1993, 22/1994 eta 24/1996 Foru Arauen hainbat artikulua ez-legezko izendatzeko Europar Batzordearen erabakiari dagokionez aurkeztutako errekurtsoak ezesten dituen. Iritzi bereko azaldu da enpresek jarritako eta ebazteko dauden beste errekurtso batzuen izateari dagokionez, Arabako Erakunde Juridiko Administrazioaren aurrean jarritakoak, hainbat laguntza fiskal itzultzeko eskakizunari buruzkoak eta Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Auzitegi Salaren aurrean jarritakoak, ondare kaltea dela-eta.

Sarrera fiskalei dagokionez, HKEEk kritikatu egin du AFarentzat Finantzen Euskal Kontseiluak finkatutako 21 milioi euroko sarrera ez zehaztu, ez arrazoitu izana, Foru Administrazioen artean kitatzeko zeuden zerga erreklamazio guztiak behinbetiko kitatutzat eta indargabetutzat izendatzearen truke.



Administrazio kontratazioaren eta emandako diru-laguntzen fiskalizazioan, ez-betetzeak publizitate eta lehia printzipioak ez bete izatean oinarritzen dira.

AFaren bi erakunde autonomoek indarreko araudia bete dute ekonomia-finantzaren kudeaketan, salbuespen izan direlarik Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen hainbat esleipenetan publizitate eta lehia printzipioak ez bete izana eta zerga aitortzen goi kargudun bati bi erakundeetan ordaindutako zesantiak ez barne hartu izana, ez baititu NUIZi meneratutako ordainsaritzat jotzen.

Epaitegi honen iritzira, Gazteriaren Foru Institutuak eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak aurkeztutako kontuek alderdi esanguratsu guztietan aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala erakusten dute.

Txostenak, gainera, % 50etik gorako partaidetza duten hamar foru sozietate publikoak fiskalizatzen ditu eta erakunde fiskalizatzailearen iritzi orokorra aldekoa da, bertan jasotako ez-betetzeak salbuetsita. Berebat, sozietate publiko horien urteko kontuei buruzko iritzi aldekoa eman du.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalen kudeaketari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen emakidari eta langileen kudeaketari dagozkionak. Atal honetan aipatutako zenbait egoera eta gomendio aurreko ekitaldietako fiskalizazio txostenetan jasotakoen pareko dira.

Azkenik esan behar dugu finantzaren analisisian agerian jarri dela eragiketa arruntaren kontsolidatutako aurrekontuaren saldoak modu askian finantzatu dituela kapitalezko eragiketak, zorpetze bidea erabili beharrik izan gabe.